

TERMINOLOGIAKO DATU BANKUAK: EUSKALTERMEN DISEINUA ETA KUDEAKETA

Miel LOINAZ

UZEI

1. HISTORIA

1.1. Ingurunea

Hiztegigintzaren informatizazioa 50. hamarkadan hasi zen eta terminologiako lehen datu-banku handiak 60. eta 70. hamarkadetan garatu ziren.

Garai haietan ordenadoreak urriak ziren, handiak eta oso garestiak. Horregatik, enpresa oso handiek eta erakunde gubernamentalek bakarrik zuten beren hizkuntza-zerbitzuen barnean terminologiako datu-banku bat antolatzeko ahalmena. Hala sortu ziren lehen termino-bankuak:

EURODICAUTOM, Europako Komunitateen Batzordearena.

LEXIS, Alemaniako Hizkuntzen Bulego federalarena.

TERMIUM, Kanadako Gobernuaren Hizkuntza Zerbitzuarena.

NORMATERM, Frantziako AFNOR estandarizazio-erakundearena.

TEAM, Alemaniako Siemens enpresarena.

BTQ, Kanadako Office de la Langue Française-rena.

1.2. UZEIren sorrera

1977an sortu zen UZEI erakundea, terminologian aritzeko asmo sendoarekin. Sortzaileetako batzuek bazuten esperientzia pixka bat hiztegigintza teknikoan: *Natur Zientziak* (1976) izeneko lehen hiztegi teknikoa kaleratua baitzuten ordurako.

Hiztegi berezituen produkzioa oso emankorra izan zen lehenengo 10 urteetan, guztira 30 bat hiztegi terminologiko argitaratu baitziren epe horretan. Askok egitura mistoa zuten: parte bat entziklopedikoa eta beste bat bokabulario edo lexiko erakoa. Hiztegi hauetan jakintza-arlo oinarritzekoak landu ziren hasieran eta espezializazioa areagotuz joan zen gerora.

Hasieran paperezko fitxak erabiltzen ziren hiztegiak lantzeko. Inprimategian argitaratu ahal izateko, hitz-zerrendak Instituto Deusto izeneko enpresako ordenadorean kopiatzen ziren. Baina, hiztegiaren lanketan sortutako hustuketa-fitxak (terminologia deskribatzailea) ez ziren argitaratzen eta paperezko fitxategietan geratzen ziren.

HIZTEGIA	URTEA	FITXAK
Fisika	1979	3.379
Politika 1/2	1980	6.815
Kimika 1/2	1980	5.351
Psikologia	1980	4.638
Enpresa	1981	4.935
Ekonomia	1981	4.131
Hizkuntzalaritza 1/2	1982	4.899
Matematika 1/2	1982	4.430
Kirolkidea	1982	2.110
Artea	1982	6.217
Administrazioa	1983	4.933
Finantzak	1983	5.799
Biologiako Izendegia	1984	3.791
Teknologia mekanikoa	1985	6.202
Futbola	1985	1.856
Zuzenbidea 1/2	1985	7.519
Termino estatistikoak	1985	1.235
Musika	1986	454
Liseriketa	1986	1.387
Botanika	1986	2.449
Filosofia 1/2	1987	7.248
Ekologia	1987	1.890
Erljioa 1/2	1987	7.094
Glotodidaktika	1987	781
Meteorologia	1988	2.021
Zoologia	1988	2.959
Laburtzapenak	1988	2.777
Arnas aparatua	1988	1.405
Eraikuntza	1990	1.500
Pediatría	1990	1.225
Informatika	1993	1.600
Janari-edariak	1994	2.160
Atletismoa	1994	510
Futbola	1994	590
Pilota	1994	409
Nekazaritza	1995	2.015
Txirrindularitza	1996	532
Bazarra, ehunkiak	1997	1.906

Miniordenadore bat (Bull-en Mini 6) lortu zen 1982an. Terminologia lantzeko ez zegoen software aproposik eta etxean egin behar izan zen datu-base kudeatzaile bat, Fortran lengoaiari programatuz! Klaudio Harlouxet informatikaria izan zen egituraren asmatzailea, kortxeteak eta informazio etiketatua erabiliz UZEIko teknikariek adierazitako datu-motak adierazteko. Datu-basearen kudeatzailearen funtzioak programa independente gisa exekutatzeko ziren: hiztegia definitzekoa, fitxa sortzekoa, fitxa modifikatzekoa, fitxa ezabatzekoa, fitxak listatzekoa,...

Hiztegi berria definitzean, fitxa-egitura proiektu hartako premien arabera moldatzen zen: hiztegi batek bi hizkuntza zituen eta beste batek lau, batzuek definizioa zuten eta beste batzuek ez. Hiztegi bakoitzak bere sailkapen-sistema propioa zuen.

Ordenadorea sartu aurretik argitaratuta zeuden hiztegiak ere diseinatutako egiturara konbertitu ziren banaka.

Fitxaren egitura hura, gaur arte erabili dena, benetan baliagarria eta gaurkotasunez bete gertatu da. UZEIko teknikarien intuizioa harrigarria izan zen benetan. Izan ere, garai hartan asmatutako fitxa-eredua eta gaur egun, terminologiarako SGML eran proposatzen

dena, ia erabat parekoak baitira, bai datu-kategoriei dagokienez eta bai datuen arteko erlazioei dagokienez.

Horrela, 1988an, 10 urtetan argitaratutako 30 hiztegi independente inguru zeuden ordenadorean. Gainera baziren itzulpenetatik hustutako beste fitxa-multzo batzuk ere. Hiztegi hauek denak batera kontsultatzeko moduan zeuden UZEIn terminal batean eta terminal hura erabiltzen zuten bertako terminologo eta itzultzaileek.

Hura "glosario erako datu-bankua" zen (*glossary-type terminological data bank*), hau da, sarrera-multzo independenteak, sarreraren formaz gainerako informazio gutxi zuena. Guztira 124.000 fitxa ziren. Nabariak ziren beren arteko erredundantziak eta desadostasunak. Ezinbestekoa zen guztiekin datu-banku egituratu bat antolatzea.

1.3. Euskalterm datu-bankuaren antolaketa

Berrantolaketa hitzarekin identifikatzen dugu etxe barnean fase hau.

Euskalterm izeneko terminologiako datu-bankua "bokabulario erako datu-banku" (*vocabulary-type terminological data bank*) bihurtzea zen asmoa, hau da, kontzeptuak definizioen eta, batez ere, sailkapenaren bidez antolatuta edukiko zituen egitura. Datu-bankuarentzako sailkapen-sistema bakar bat ezarri zen eta bi hiztegi berri definitu ziren: **Hiztegi terminologikoa** eta **Itzulpen-hiztegia**. Izan ere, ordurarte argitaratutako hiztegietan, hainbat eratako fitxak zeuden; batzuk erabat terminologikoak ziren bitartean, beste batzuk itzulpen-premien edo forma-finkatzearen eraginez sortuak ziren.

Aurreko hiztegietako fitxa guztiak berrikusi ziren, egokitu, errepikatuak soildu eta bi hiztegietako batean sartu. Lan honen iraupena bost urtekoa izan zen (1988-1992) eta guztira 15.000 lan-ordu eskaini zitzaizkion, terminologoen eta terminalistek emandakoak batuta.

Bitartean, eguneroko lanean sortutako itzulpenen eta kontsulten hustuketak ere gordetzen ziren **Kontsultak** izeneko beste hiztegi batean. Hiztegi honetako fitxak, batzuk terminologikoak lirateke eta besteak itzulpenekoak, baina behar bezala landu gabe eta bereizi gabe daude.

Handik aurrera landu diren hiztegiak (Informatika, Janari-edariak, Nekazaritza,...), banaka integratu dira datu-bankuan.

Hiztegien lanketan sortutako hustuketa-fitxak, hasierakoak paperean eta ondorengoak euskarri informatikoan zeudenak, **Hustuketa-fitxak** izeneko beste 'hiztegi' batean bildu ziren.

Gainera badira beste zenbait material kanpotik bilduak, adibidez, **Izen propioen hiztegia** eta **Kanpoko hustuketak** izenekoak.

2. EUSKALTERM DATU BANKUAREN EGITURA

2.1. Kontzeptu batzuk

Gaur arte mantendu den datu-bankua erdiko tamainakoa dela esan genezake, ez handienetakoa, ezta txikia ere. Miniordenadore batean korritzen du eta hau Macintosh eta PC-sare batekin dago lotua, haietako bakoitzetik emulazioz kontsultatzeko moduan.

Deskribapenean aipatzen diren objektu eta egiturak "objektu eta egitura logikoak" dira, beti ere hardware mailako antolaketa kontuan hartu gabe. Laburki esanda, datu-

bankua hiztegietan antolatzen da, hiztegia fitxaz osatzen da eta fitxa bakoitzak eremuak dauzka.

- **hiztegia**: Datu-bankuaren egitura "hiztegia" aipatzen denean (*Hiztegi terminologikoa, Itzulpen-fitxen hiztegia, Izen propioen hiztegia, Hustuketan hiztegia*), "hiztegi logiko" bati buruz egiten da, hau da, kategoria bereko fitxa-multzoa bezala (TERMIUMeko hizkeran "record category"). Multzo horrentzat eskakizun hauek formulatzen dira:
 - Hiztegi guztien egiturak ez dauka berbera izan beharrik. Adibidez, Hiztegi terminologikoak eta Hustuketan hiztegiak edo Izen propioenak. Baina, egitura horiek bateragarriak izango dira, hiztegi bat baino gehiagorekin egin nahi diren funtzioetarako. Adibidez, hiztegiak batera kontsultatu ahal izateko.
 - Bilaketak, selekzioak edo kontsultak egitean, posible izango da aurrez hiztegi batzuk aukeratu eta beste batzuk kanpo uztea. Eta berdin kanpo-kontsultarako.
 - Bolumenari dagokionez, hiztegi bateko fitxa-kopurua 10.000tik 100.000ra bitartean ibili ohi da.
- **fitxa**: Hemen "fitxa" hitza aipatzen denean, "fitxa logiko" bati buruzko erreferentzia egiten da ("terminological entry"), hau da, fitxa deitzen zaio datu-banku terminologiko batean, hiztegiko oinarritzko osagaiari. Unitate bezala tratatzen da, fitxak sortzeko, modifikatzeko, hautatzeko eta modu desberdinetan erakusteko edo ikusteko funtzioetan. Bestalde, informatikarien esku geratzen da "terminological record" delakoa diseinatzea, hau da, "fitxa logikoak" "fitxa fisikoetan" antolatzeko modua.
- **fitxa-eremua**: Fitxaren barneko **datu-kategoria** bakoitza, definizio eta funtzio propioa duena. Eremuen artean hierarkia ezar daiteke, adibidez, haietako bat ezabatzean bere azpiko guztiak ezabatuak izan daitezten eta eremu batzuk errepikagarri bezala defini daitezke.

2.2. Fitxa-eredua

Euskaltermen erabiltzen den fitxa-ereduan ondorengo ezaugarriak azpimarra daitezke:

- datu-kategoria batzuen artean egitura hierarkikoa dago: kontzeptu-zenbakia -> hizkuntza -> terminoa -> iturri-kodea -> orrialdea.
- datu-kategoria batzuk errepikagarriak dira: hizkuntza, terminoa, iturri-kodea, sailkapena.
- ez dago mugarik eremuen luzerari buruz: sarrera izan daiteke hitz bakarrekoa edo orrialde erdi baten tamainako paragrafoa.

Euskalterm-en orain arte erabili izan diren datu-mota garrantzizkoenak azaltzen dira ondoren. Fitxa-eremuarentzat erabiltzen den etiketa eta haren izena erakusten da, ISOren izenarekin batera.

EUSKALTERM		ISO/TC 37/SC 3
<KZ=>	Kontzeptu-zenbakia	entry identifier
<EZ=>	Erreferentzi zk.	(record identifier)
<Z=>	Zubia	working status
<H=>	Hizkuntza	language code
<S=>	Sarrera	term
<OG=>	Ohar gramatikala	grammar
<OH=>	Oharra	note
<K=>	Kodea	source identifier
<OR=>	Orria	page
<LB=>	Laburtzapena	abbreviated form
<LA=>	Laburtzapen-azalpena	full form
<TI=>	Testuingurua	context
<K=>	Kodea	source identifier
<OR=>	Orria	page
<P=>	Ponderazioa	standardization status
<SAI=>	Sailkapena	subject field
<IK=>	Ikusa	see
<DF=>	Definizioa	definition
<K=>	Kodea	source identifier
<OR=>	Orria	page
<AK=>	Argitalpen-kodea	origin
<FE=>	Fitxa-egilea	responsibility
<OH=>	Oharra	note
<DT=>	Data	update date

```

<<KZ=024420>
<EZ=00024420>
<<H=E>
<<S=baso-zuhaitz><K=EF87><K=AC25><K=EM53>>
<<S=baso-arbola><K=AC25>><K=EF87>>>
<<H=G>
<<S=@2arbol forestal><K=AC25>>>
<<H=F>
<<S=arbre forestier><K=KB17>>
<<S=essence foresti@1ere><K=AA60>>
<<H=I>
<<S=forest-tree><K=KB17>>>
<SAI=FNL>
<<DF=Basoa lantzeko erabiltzen den zuhaitz-espezia zein
barietatea.>
<K=AB80>>
<FE=AA60>
<DT=96-12-26>>

```

EF87: MUNITA,I.: Gure mendi ta Oianak. Zuaizti berriak antolatu ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek, Mugerza, Tolosa, 1952.

Egitura hau TEI-SGML bezalako estandarrago batera bihurtzeko aski da etiketak aldatu eta eragiketa soil batzuk egitea:

```

<termEntry>
  <admin type='domain'> FNL: Basogintza </admin>
  <admin type='responsibility' resp='AA60'> </admin>

  <tig lang=eu>
    <term>baso-zuhaitz </term>
    <ptr type='bibliographic' target='AC25'>
    <ptr type='bibliographic' target='EM53'>
    <ptr type='bibliographic' target='EF87'>
    <term>baso-arbola </term>
    <ptr type='bibliographic' target='AC25'>
    <ptr type='bibliographic' target='EF87'>
    <descrip type='definition'>Basoa lantzeko erabiltzen den zuhaitz-espezia zein
      barietatea </descrip>
    <ptr type='bibliographic' target='AB80'>
  </tig>

  <tig lang=fr>
    <term>arbre forestier</term>
    <ptr type='bibliographic' target='KB17'>
    <term>essence foresti&eacute;re; </term>
    <ptr type='bibliographic' target='AA60'>
  </tig>

  <tig lang=en>
    <term>forest-tree </term>
    <ptr type='bibliographic' target='KB17'>
  </tig>

</termEntry>


```

```

<biblFull>
  <titleStmt id=EF87>
    <editor>MUNITA,I. </editor>
    <title> Gure mendi ta Oianak. Zuaizti berriak antolatu ta lengoak zaintzeko
      zuzenbide batzuek </title>
  </titleStmt>
  <publicationStmt>
    <publisher>Mugerza </publisher>
    <place>Tolosa </place>
    <date>1952 </date>
  </publicationStmt>
</biblFull>

```

Fitxaren eremuek beren artean duten egitura hierarkikoa adierazten da ondorengo irudian. Zenbait eremu fitxa osoari dagozkio: sailkapena, definizioa, oharra, argitalpen-kodea, fitxa-arduraduna, modifikazio-data. Beste informazio batzuk hizkuntzaka antolatzen dira eta hizkuntza bakoitzaren barnean terminoak sartzen dira. Terminoekin batera iturria, oharra, informazio gramatikala, forma laburra, forma luzea, testuingurua eta ponderazioa jartzen dira.



2.2.1 Kontzeptuari dagozkion datu-kategoriak

Kontzeptu-zenbakia (KZ). Fitxa bakoitzaren identifikadorea da hiztegiaren barnean, fitxa hori berreskuratzeko eta hiztegi bereko beste fitxa batetik hari erreferentzia egiteko balio duena. Sistemaz kontrolatu beharreko ezaugarriak:

- nahitaezkoa
- bakarra hiztegiaren
- zenbakizkoa
- hierarkian lehenengoa

Sailkapena (SAI). Erabileremua zehazten duen informazioa. Erabileremua kodetuta eskaintzen da. Kode hau oraingoz hiru letrakoa da, baina pentsatu behar da motz ari zaigula geratzen. Beste hiru karaktererekin aski izango da urte askotarako. Kontrolatu beharreko ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- egiaztatua, sailkapenen zerrendarekin
- nahitaezkoa
- errepikagarria

Erreferentzia (IK). (Sistemaren mugengatik ez da erabili ahal izan modu kontsistentean). Kontzeptuen arteko erreferentziak egiteko balio du hiztegi baten barnean.

Definizioa (DF). Kontzeptuaren deskribapen linguistikoa. Testu bat izaten da, batzuetan aski luzea. Ezaugarriak:

- testua
- luzera mugagabea
- bakarra fitxa terminologikoan, laneko fitxategietan errepikagarria.
- gomendatua Hiztegi terminologikoan, aukerazkoa besteetan

Definizioaren iturri-kodea (K). Definizioaren azpi-eremu bat da, haren iturria adierazten duena. Ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- errepikagarria
- egiaztatu beharrekoa, Datu-base bibliografikoko kodeekin

Definizioaren iturri-kodearen orria (OR). Definizioaren iturri-kodearen azpi-eremu bat da, haren iturriaren orrialdea adierazten duena. Ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- luzera mugagabea

2.2.2 Terminoari dagozkion datu-kategoriak

Hizkuntzaren marka (H). Gure erabileran terminoaren gain-eremua da. Terminoak zein hizkuntzatakoa den adierazten du. Euskara, espainiera, frantsesa, ingelesa eta latina (taxonomian) dira argitalpenetan landutako hizkuntzak. Ezaugarriak:

- testua
- nahitaezkoa
- bakarra termino bakoitzarentzat
- egiaztatu beharrekoa, hizkuntzen sinboloekin

Terminoak (S) edo sarrera. Batzuetan hitz bat da, beste batzuetan esaldi edo unitate fraseologiko luze bat ere bai. Ezaugarriak:

- testua
- luzera mugagabea
- errepikagarria
- nahitaezkoa, bat bederen fitxa bakoitzean.

Informazio gramatikala (OG). Terminoaren azpi-eremua. Terminoari buruzko zehaztasun gramatikalak eskaintzen dituena. Ezaugarriak:

- testua
- egiaztatu beharrekoa ohar gramatikalen zerrendarekin

Terminoaren oharra (OH). Terminoaren azpi-eremua. Terminoaren esanahiari edo erabilerari buruzko informazio osagarria ematen duena. Ezaugarriak:

- testua
- bakarra, termino bakoitzarentzat
- aukerazkoa

Terminoaren iturria (K). Terminoaren azpi-eremua. Terminoaren jatorria adierazten du, kode bidez. Ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- errepikagarria, mugarik gabe
- egiaztatu beharrekoa, Datu-base bibliografikoko kodeekin
- nahitaezkoa

Terminoaren iturriaren orrialdea (OR). Terminoaren iturriaren azpi-eremua. Terminoaren iturria zehazten du, gehienetan orrialdea adieraziz, baina dokumentuaren barneko bestelako gai-banaketak erabiliz ere bai. Ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- luzera mugagabea
- aukerazkoa

Forma laburra (LB). Terminoaren azpi-eremua. Terminoaren forma laburra (sinboloa, laburdura, elipsi bidezko trinkoketa) adierazten du. Ezaugarriak:

- testua
- luzera mugagabea

Forma luzea (LA). Terminoaren azpi-eremua. Termino laburraren forma luzea edo osoa adierazten du. Ezaugarriak:

- testua
- luzera mugagabea

Testuingurua (TI). Terminoaren azpi-eremua. Ez da sistematikoki erabiltzen, baina esanahia argitzeko edo erabilera zehazteko batzuetan egokia izaten da. Ezaugarriak:

- testua
- luzera mugagabea
- errepikagarria
- aukerazkoa

Testuinguruaren kodea (K). Testuinguruaren azpi-eremua. Ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- luzera mugagabea

Testuinguruaren kodearen orrialdea (OR). Testuinguruaren kodearen azpi-eremua. Ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- luzera mugagabea

Ponderazioa (P). Terminoaren azpi-eremua. Normalizazio-egoera adierazten du, kode bidez. Ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- bakarra termino bakoitzarentzat
- egiaztatu beharrekoa, ponderazio-kodeen zerrendarekin

2.2.3 Datu-kategoria administratiboak

Etxe-barnean datu-bankuko hiztegiak kudeatzeko balio duen informazioa da eta normalean ez da kanpora eskaintzen.

Azken modifikazio-data (DT). Fitxa noizkoa den adierazten du. Ezaugarriak:

- data
- bakarra
- derrigorrezkoa

Fitxaren arduraduna (FE). Fitxaren erantzukizuna nork duen adierazten du. Bibliografiako kodeen bidez zehazten da. Ezaugarriak:

- alfazebakizkoa
- bakarra
- egiaztatu beharrekoa, kode bibliografikoekin

Fitxaren iturria (AK). Fitxa hori beste argitalpen batetik osorik hartua denean. Ezaugarriak:

- bakarra
- alfazenbakizkoa
- egiaztatu beharrekoa, kode bibliografikoekin
- aukerazkoa

Fitxaren oharra (OH). Fitxari buruzko iruzkinak, beti ere barne-erabilerarako eginak. Ezaugarriak:

- testua
- luzera mugagabea
- bakarra
- aukerazkoa

Fitxaren egoera (Z). Fitxaren egoerari buruzko informazioa. Eremu hau datu-bankuaren berrantolaketa egin zenean erabili zen bereziki. Ezaugarriak:

- alfazenbakizkoa
- luzera mugatua
- bakarra
- egiaztatu beharrekoa fitxa-egoerako kodeen zerrendarekin

2.3. Gaien sailkapena

Kontzeptuen sailkapenerako hiru letrako sistema erabiltzen da. Lehen mailako sailkapenak jakintza-gai guztiak hartzeko asmoa du.

A	MATEMATIKA ETA ESTADISTIKA
B	KIMIKA ETA FISIKA
C	BIOLOGIA
D	GEOLOGIA
E	MEDIKUNTZA ETA ALBAITARITZA
F	NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
G	INFORMATIKA
H	GARRAIOA, POSTA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK
I	ERAIKUNTZA ETA HIRIGINTZA
J	HISTORIA. GAI MILITARRAK
K	INDUSTRIA
L	JARDUERA GREMIAL ETA KOMERTZIALAK
M	ADMINISTRAZIOA
N	ZUZENBIDEA
O	EKONOMIA ETA ENPRESA
P	POLITIKA, SOZIOLOGIA ETA ANTROPOLOGIA
Q	GEOGRAFIA
R	FILOSOFIA
S	ERLIJIOA
T	PSIKOLOGIA ETA PEDAGOGIA
U	HIZKUNTZALARITZA, LITERATURA, INFORMAZIO-ZIENTZIAK ETA DOKUMENTAZIOA
W	ARTEAK
X	KIROLA, JOKOAK, AISIA
Y	IZENAK, TITULUAK
Z	LABURTZAPENAK

Hiztegiak landu ahala, arlo haietako sailkapena gehiago xehatzen da bigarren eta hirugarren letrak erabiliz.

C BIOLOGIA

CA	Izendegia
CAA	Arrainen izenak
CAF	Anfibioen izenak
CAH	Hegaztien izenak
CAL	Landareen izenak
CAN	Narrastien izenak
CAO	Ornogabeen izenak
CAP	Perretxikoen izenak
CAU	Ugaztunen izenak
CB	Taxonomia
CD	Botanika

2.4. Euskalterm datu-bankuaren osagai nagusiak

<p>- Datu-base bibliografikoa</p> <p>- Hiztegien datu-baseak</p> <p>Fitxa terminologikoen hiztegia</p> <p>Itzulpen-fitxen hiztegia</p> <p>Kontsulten hiztegia</p> <p>Kanpo-hustuketan hiztegia</p> <p>Izen propioen hiztegia</p> <p>Hustuketa sistematikoak</p> <p>- Dokumentuen datu-baseak</p> <p>Itzulpenen datu-base dokumentala</p> <p>Arauen datu-base dokumentala</p>

2.4.1 Datu-base bibliografikoa

Dokumentazioari buruzko informazio bibliografikoa antolatzeko helburua du. Fitxa bakoitza bere dokumentuaren kodearekin identifikatzen da. Hor biltzen dira erakundearen liburutegiko dokumentuak, terminoen iturrietan aipatzen diren dokumentuak (nahiz eta erakundearen ez egon) eta erakundearen artxibatuta dauden hainbat barne-dokumentu, terminoen iturrietan aipatu direnak.

Erakundeko lankideek ere badute beren kode pertsonala eta hiztegegintzan parte hartu duten kanpo-lankide askok ere bai. Beraz, dokumentu-kodeak berdin balio du argitaratua izan den liburu batentzat, UZEIn artxibatuta dagoen barne-dokumentu batentzat edo “terminoaren iturri” izan den pertsona batentzat.

Une honetan 15.000 fitxa ditu datu-base honek. Fitxak bi eremu esanguratsu dauzka: kodea eta azalpena.

2.4.2 Hiztegien datu-baseak

2.4.2.1 Fitxa terminologikoen hiztegia

Hau da datu-bankuaren oinarria. Bere 73.000 fitxatan bildu da UZEIko hiztegegintzaren emaitza. Guztira 303.600 sarrera ditu 5 hizkuntzatan (eu, es, fr, en, la) eta 15.500 definizio.

Berez, jakintza-gai eta arlo tekniko guztiak hartzen ditu bere baitan, baina arlo guztiak ez dira berdin garatu ahal izan.

Erabileremuak	Fitxa-kopurua
Matematika	3.539
Kimika eta Fisika	6.211
Biologia	9.989
Geologia	2.066
Medikuntza eta Albaitaritza	3.089
Nekazaritza, Arrantza	2.023
Informatika	1.589
Garraioa, Posta, Telekomunikazioak	735
Eraikuntza eta Hirigintza	2.392
Teknologia; Industria	5.121
Jarduera Gremial eta Komertzialak	2.413
Administrazioa	966
Zuzenbidea	4.660
Ekonomia eta Enpresa	3.232
Politika, Soziologia, Antropologia	2.294
Filosofia	4.069
Erljioa 4.732	
Psikologia eta Pedagogia	2.622
Hizkuntzalaritza	4.192
Arteak	3.996
Kirola, Jokoak, Aisia	3.165

Informazioaren gaurkotasunari buruz, duela hainbat urte argitaratutako zenbait hiztegitako fitxak partez zaharkituta geratu dira (adibidez, Ekonomiakoak), baina argitaratu berriak diren hiztegitako fitxek gaurkotasun ona dute (adibidez, Informatikakoak).

2.4.2.2 Itzulpen-fitxen hiztegia

UZEIko hiztegieta zeuden fitxa 'ez oso terminologikoak' eta itzulpenetatik hustutako unitateak biltzen ditu. Era askotako materialak dauzka bere baitan: itzulpen-unitateak, izenondo erreferentzial soilen fitxak, fitxa oso orokorrak (lexikoagrafiatik hurbilago daudenak terminologiatik baino), etab. Guztira 50.000 fitxa ditu.

2.4.2.3 Kotsulten hiztegia

Kontsulta puntualen eta itzulpenen hustuketan egunero sortzen den materiala, behin-behinekoa. Ez da bere terminotasuna aztertu. 12.000 fitxa dira. Fitxa hauek, hobeto aztertu eta landu ondoren, banatu egingo dira Hiztegi terminologikora edo Itzulpen-fitxen hiztegiara.

2.4.2.4 Kanpo-hustuketen hiztegia

Iturri desberdinetako fitxak dauzka. UZEItik kanpo sortutako materialak dira eta erakunde desberdinen bateratze-saio eta ahaleginetarako baliagarri direlako hartu dira.

Hor daude, besteak beste, Hezkuntza Administrazioiko Hiztegiko fitxak, Europako Ituneeen Hiztegia, Bide Seinaleak, Barne Errotulazioa, Justizi Saileko Izendegia, HAEE/IVAPEko ekarpenak, Kale izenak, etab.

Guztira, 14.181 fitxa ditu.

2.4.2.5 Izen propioen hiztegia

Barne-kontsultarako da soilik. UZEIk ez ditu landu izen propioak modu sistematikoan. Baina eguneroko lanean garrantzi handikoa da izen propioen erreferentzi obrak kontsultatu ahal izatea. Horregatik, barne-lanerako, Elhuyarren bi hiztegi, pertsona-izenena eta leku-izenena, bildu dira datu-base batean. Bertan gehitu dira Euskaltzaindiak izen propioei buruzko arau desberdinetan eman dituenak: munduko estatu-izenak, mendi-izenak, ibai-izenak,...

Guztira 10.303 fitxa ditu.

2.4.2.6 Hustuketa sistematikoak

Terminologia deskribatzailearen arloko materialak dira, eta gehienak ez dira inoiz ere argitaratu. Batzuetan, helburu deskribatzailearekin egindako hustuketa-lan sistematikoaren emaitzak dira: Irakasmunduko hustuketa, Komunikabideen hustuketa. Beste batzuetan, aldiz, hiztegi gintzako hustuketa sektorialen emaitzak: Biologiako izendegiko hustuketa, Erljioko hustuketa.







(Kopuruei buruzko datuak 1997ko uztailekoak dira).

2.4.3 Dokumentuen datu-baseak

2.4.3.1 Itzulpenen datu-base dokumentala

Itzulpenaren laguntzarako baliabide bat da, orain dela gutxi antolatu dena. UZEIn egindako itzulpenak (luzeak eta laburrak), kontsultei erantzutean sortutako dokumentuak etab. biltzen ditu.

Normalean, bi dokumentu paralelo izaten dira, jatorrizko hizkuntzakoa eta xede-hizkuntzakoa, paragrafoka alineatuak. Normalean espainierazko eta euskarazko testu paraleloak izaten dira, baina hizkuntza gehiago ere sar daitezke. Horrela, adibidez, Windows 95 itzuli ondoren, datu-base honetan sartu dira paragrafo baliokideak ingelesez, espainolez, euskaraz, etab.

Une honetan 2.755 dokumentu eleanitz dauzka, 146.690 paragrafotan banatuta.

2.4.3.2 Arauen datu-base dokumentala

Hemen biltzen dira arau gisako erreferentzi balioa duten hainbat dokumentu:

- Euskaltzaindiak emandako arauak eta gomendioak.

- Euskaltzaindiak lexiko arruntaren arloan Hiztegi Baturako argitaratutako hitz-zerrendak.
- UZEIko teknikarien barneko homologazio-prozesuan hartutako erabakiak.

Arauen datu-baseak 407 dokumentu dauzka, erakunde sortzailearen arabera multzokatuta.

Bilaketak egiteko, testu barneko hitzak erabiltzeaz gain, dokumentu bakoitzari ezarri zaizkion gako-hitzak ere erabil daitezke.

3. DATU-BANKUAREN EGUNERATZEA

Eguneratzearen barnean bi alderdi bereziko dira: informazioa gehitzea, hiztegi berri bat argitaratzen den bakoitzean egiten dena, eta lehendik dauden formak arau berrietara egokitzea.

3.1. Hiztegi berriak integratzea

Argitaratutako hiztegiaren gaia lehendik landua izan denean, adibidez arlo horretan itzulpen-lana handia izan denean, bankuan fitxa asko egoten da hustuta, normalean itzulpen-fitxa bezala. Adibidez, Janari-edarien hiztegia integratzean, arlo horretan egindako itzulpenen hustuketa-fitxa asko azaldu zen. Nekazaritza hiztegiaren kasua antzekoa izan zen, aurretik *Nekazal Zentsua* itzulia izan baitzen eta fitxa asko eta asko zegoen ordenadorean jasota. Honelako kasuetan fitxa guztiak banaka aztertu behar dira, ikusi zer dagoen lehendik, haietako informazioa fitxa berrietan jaso eta fitxa zaharrak ezabatzeko markatu, etab.

Integratu behar den hiztegiaren gaia lehendik gutxi landua izan denean, ez da egoten interferentzia handiegirik eta posible izaten da fitxak ia modu masiboan datu-bankura inportatzea.

Fitxa bakoitzaren sailkapena datu-bankuko sistemara egokitzea izaten da kontuz egiteko beste lanetako bat. Hiztegi tekniko gehienak eskuzabalak izaten dira beren arloan sartu behar diren kontzeptuak aukeratzean. Edozein hiztegi teknikotan egoten dira justu-justu arlo hartakoak ez diren hainbat fitxa, periferiako espezialitateei dagozkienak. 'Ingurugiro' kontzeptua hertsiki ekologiakoa izanda ere, normala da beste hainbat arlotako hiztegietan azaltzea edota elementu kimikoen izenak kimikakoak ez diren hainbat hiztegitan agertzea. Berdin gertatzen da Biologiako espezie-izenekin ere.

Fitxa berriak integratzean erraza da erredundantzia sortzea, lehendik landuta dagoen kontzeptu bat bikoiztuta sar baitaiteke beste sailkapen bat ezarriz. Honelako kasuetan, zorrotz aztertu behar dira kontzeptuak eta hertsiki dagokien sailkapena ezarri. Hala ere, batzuetan ezinbestekoa izaten da fitxa berari bi edo hiru sailkapen ezartzea. Baina, gure ustez, fitxa berean ez dira sailkapenak ugaltu behar eta ez da komeni hiru baino gehiago jartzea.

3.2. Formak eguneratzea

Euskaltzaindiak arauak ematen ditu aldizka gramatikako gaiei buruz, idazkerazko arazoei eta hainbat aztergai puntuali buruz.

Gainera Hiztegi Batua izenarekin euskararen oinarrizko lexikoa urte hauetan ari da finkatzen. Terminologiako datu-bankuaren eguneratze-lanak zerikusi handia du hizkuntzaren normalizazio-egoera horrekin. Ia hilabetero argitaratzen dira lexiko-zerrenda berriak eta etengabe aritu behar izaten da datu-bankuko formak (sarreretakoak eta definizioetakoak) haiekin konparatzen eta egokitzen.

Azkenik, eguneroko lanean sortzen diren zalantza eta eztabaida-gaiak, erabakiak hartzeko barne-prozesua burutu ondoren, arau bilakatzen dira bertako langileentzat.

Datu-bankua eguneratuta edukitzeko lanaren adibide gisa, 1996an egindako fitxa-modifikazioetan 380 forma-aldaketa kontabilizatzen dira. Hona forma horien jatorriak:

- Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan A, B, D, E (parte bat) letretan hartutako erabakiak.
- Hiztegi Batuko Batzordearen proposamenen azterketa, bereziki I, J, K, L, O, P, R letren zerrendena.
- Nekazaritza hiztegia.
- Erakunde barneko teknikarien erabakiak.

Aldaketa hauen arabera modifikatu ziren fitxetako sarrerak eta definizioetako hitzak. Guztira 5.000 fitxa inguru ukitu ziren.

4. DATU BANKUAREN KANPO-KONTSULTA

Kontsulta telematikoaren lehenengo saioak Minitel sisteman egin ziren 1987an. Lan Kide Aurrezkiko ordenadorean zegoen zerbitzaria.

1991n datu-bankuaren kontsulta-modu berria eskaini zen Bideotex sistemaren bidez.

Gaur egun kontsulta telematikorako bi bide daude aukeran, bata Bideotex sisteman eta bestea ASCII erako VT-100 terminalean Sarnet izeneko sare telematikoaz baliatuz.

Kontsultaren egitura bietan antzekoa da: hizkuntza bat aukeratu ondoren hango terminoen barneko hitzak galdetzen dira, beren artean ETA baldintza logikoa dagoela suposatuz, eta bilaketa sailkapenaren arabera murriz daiteke. Fitxak ikusteko bi formatu daude aukeran, bata laburra (espainiera-euskara), itzulpeneko pentsatua, eta bestea terminologikoa: euskara-definizioa-espainiera-frantsesa-ingelesa.

Sistema hauetan ASCII ez diren karaktereak erabiltzeko zeuden zailtasunengatik, termino guztiak maiuskulaz erakusten dira.

4.1. BIDEOTEX sistema, IBERTEX sarean sartuta

Telefónica-k eskaintzen duen sistema honetan kontsultak egiteko, aski da ordenadorea, modema eta komunikazio-programa egokia izatea (adibidez, Amaris-Ibertex programa PCrako edo MacTex programa Macintosh-erako) eta 032 markatzea.

Kostuari dagokionez, konexio-denbora bakarrik ordaindu behar da. Telefónica-k markatzen du tarifa (21 pta. minutuko guk ditugun azken datuen arabera) eta Telefónica-ko fakturan sartuta etortzen da, ez da aparteko ordainketarik egin behar. Honela, esate baterako, 5 minutuko konexioa egiten bada, 105 pta.koa izango da kostua.

4.2. VT100-ASCII sistema, SARNETen balio erantsiko saretik

SARNET sareko bezero izanez gero, bertatik bidera daiteke EUSKALTERMerako kontsulta inolako arazorik gabe, UZEI zerbitzua eskatuta. SARNET (lehen SPRITEL zena) balio erantsiko sare telematikoa da.

Kostuari dagokionez, EUSKALTERM kontsultatzeagatik minutuko 30 pta. ordaindu behar da. SARNETek egiten du fakturazioa.

EUSKALTERM

*** KONSULTA ***

DATA:97.10. 8

HIZTEGIA:HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

SAILA:CR :EKOLOGIA

EU: INGURUGIRO

DEFINIZIOA: Organismoen garapen eta bizitzan eragina duten kanpo-baldintza guztien multzoa.

ES: MEDIO AMBIENTE

FR: ENVIRONNEMENT
MILIEU (AMBIANT)

EN: ENVIRONMENT

Fitxa: 6/ 41

9:Irten

___ 1:Aurreko Orria 2:Hurrengo Orria 5:Konsulta Aldatu 0:Konsulta Berria

5. DATU-BANKUAREN INPLEMENTAZIO BERRIA

5.1. Datu-baseen kudeatzaile berria

Une honetan datu-bankuaren kudeaketa-sistema aldatzen ari gara. Datu-baseak kudeatzeko BASISplus izeneko tresna aukeratu da, Unixen dabilena eta miniordenadore batean kokatua. Kudeatzaile honen izaera dokumentala da, baina aukera ematen du fitxa terminologikoetako informazioak taula eran antolatzeko ere. Bezero-zerbitzari gisa PCetan lan egiten du erabiltzaileak.

Kudeaketa-sistema berria prestatzeko esfortzu handia eskatzen du programazio-ordutan. Hemen azaltzen dira fase bakoitzean egin diren edo aurreikusten diren programazio-orduak:

- Datu-bankua barnean kontsultatzeko aplikazioa: 600 programazio-ordu egin dira.
- Datu-bankuaren mantenimendurako aplikazioa: 800 programazio-ordu daude aurreikusita.
- Datu-bankua Internetetik kontsultatzeko aplikazioa: 150 programazio-ordu.

5.2. Fitxaren antolaketa berria

Fitxa terminologikoa lau taula erlazionatu nagusitan antolatzen da:

- Kontzeptuen taula. Fitxa osoari dagozkion eremuak hartzen ditu: hiztegia eta kontzeptu-zenbakia, sailkapena, fitxa-arduraduna, modifikazio-data, oharra.
- Terminoaren taula. Terminoaren gaineko eremuekiko lotura zehazten da: hiztegia-kontzeptua-hizkuntza. Termino bakoitzari loturiko informazioak biltzen ditu: sarrera, tipoa, iturri-kodea eta orrialdea (errepikagarriak 55 aldiz), informazio gramatikala, oharra, iturria, ponderazioa.
- Definizioen taula. Definizioaren gaineko eremuekiko lotura zehazten da: hiztegia-kontzeptua-hizkuntza. Definizioari loturiko informazioa: testua, iturri-kodea eta orrialdea (errepikagarriak 55 aldiz).

- Testuinguruen taula. Testuinguruaren gaineko eremuekiko lotura zehazten da: hiztegia-kontzeptua-hizkuntza-terminoa. Edukia: testuingurua eta iturri-kodea eta orrialdea (errepikagarriak 55 aldiz).

Gainera badira beste taula osagarriak kontzeptuen arteko eta terminoen arteko erreferentziak egitekoak eta beste batzuk edukiaren balidazioa eta dekodeketa egitekoak: iturri-kodeenak, ponderazio-markenak, sailkapen-kodeenak, etab.

Kontzeptuen taula:

HIZTEGIA KONTZEPTU-ZENBAKIA SAILKAPENA ARDURADUNA DATA OHARRA

Terminoen taula:

HIZTEGIA HIZKUNTZA TERMINOA OHAR GRAM. OHARRA ITURRIA PONDERAZIOA

Definizioen taula:

HIZTEGIA HIZKUNTZA DEFINIZIOA ITURRIA

Testuinguruen taula:

HIZTEGIA HIZKUNTZA TERMINOA TESTUINGURUA ITURRIA
--

Fitxa-ereduan ere zenbait aldaketa egin dira, oraingo kudeatzaileak eskaintzen dituen erraztasunak baliatzeko:

- Definizioa hizkuntzaren azpiko eremu gisa jartzen da. Horrela posible da definizioak hizkuntza askotan dituzten fitxak erabiltzea. Izan ere, orain arte definizioa euskaraz bakarrik lantzen zen eta fitxa osoari lotzen zitzaion eta ez hizkuntza bati.
- Terminoren azpian dauden forma laburra eta forma osoa desagertzen dira. Denek termino-izaera izango dute. Eremu berri bat definitzen da, terminoren tipoa, eta honen balioak: termino nagusia, sinonimoa, forma laburra, forma osoa. Forma laburraren eta forma osoaren arteko lotura terminoen arteko erreferentzi taula batek egiten du. Izan ere, fitxa berean aurki daitezke laburdura eta forma luze bat baino gehiago.

5.3. Barne-kontsultako aldaketak

- Kontsulta moduan aukera gehiago sartuko dira, orain arte hizkuntza bateko termino barruko hitzak bakarrik kontsultatzen baitziren. Orain hizkuntza desberdinak konbina daitezke eta termino barruko hitzak, termino osoak edo definizio barneko hitzak galdetu.
- Terminoen iturriak dekodetuta erakusten ditu sistemak berak nahi izanez gero.

5.4. Kanpo-kontsulta Interneten

Datu-bankuaren kontsulta telematikoa eguneratzeko erabakia hartu da eta lehengo sistemak utzi (Bideotexa, ASCII terminala) eta Interneteko bidea aukeratu da. Kontsulta HTML erako interfaze batetik egingo da eta pantailaren diseinurako Eurodicautom-ek daukan zenbait elementu interesgarriak dira.

BIBLIOGRAFIA

- COTSOWES Terminology. TERMIUM The Canadian Government's Linguistic Data Base.
- HVALKOF, S.: Étude comparative des données terminologiques des banques de terminologie DANTERM, B.T.Q., EURODICAUTOM, NORMATERM, O.F.L. et SIEMENS, Fagsprogligt Center. Handelshojskolen, i Kobenhavn, 1985.
- ISO WD 12615.7: Bibliographic references for terminology work (1994) (*laneko dokumentua, behin-behinekoa*).
- ISO/TC 37/ SC 3: Computational aids in terminology - Data element categories (1995) (*laneko dokumentua, behin-behinekoa*).
- ISO: Norme Internationale. ISO 704. Principes et méthodes de la terminologie / Principles and methods of terminology, ISO. INTERNATIONAL ORGANIZATION FOR STANDARDIZATION, Suitza, 1987.
- SCHMITZ, K.-D.: Guidelines for the Design and Implementation of Terminological Data Banks. TAMA'92. Termnet.
- TEI Guidelines: *Terminological Databases* (13. kapitulua. SGML hizkuntza terminologiara aplikatzeko gidarauak dira).

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Terminologiako Datu Bankuak: EUSKALTERMen diseinua eta kudeaketa

Terminologiako lehen datu-banku handiak 60. eta 70. hamarkadetan garatu ziren eta garai hartan, 1977an, sortu zen UZEI erakundea ere, terminologian aritzeko asmo sendoarekin.

Hiztegi berezituen produkzioa oso emankorra izan zen lehenengo 10 urteetan eta 1988an 30 hiztegi independente inguru zeuden ordenadorean. **Euskalterm** izena eman zitzaion datu-bankuari eta egituraz "glosario erako datu-bankua" zen, hau da, sarreramultzo independenteak, sarreraren formaz gainerako informazio gutxi zuena. Guztira 124.000 fitxa ziren.

Terminologi bankua "bokabulario erako datu-banku" bihurtzea erabaki zen eta "hiztegi" izeneko fitxa multzo nagusi batzuk definitu ziren: **Hiztegi terminologikoa** fitxa terminologikoentzat eta **Itzulpen-hiztegia** itzulpen-unitateentzat. **Kontsultak** izeneko beste hiztegi batean jasotzen da eguneroko lanean sortzen den terminologia berria. **Hustuketa-fitxak** izenarekin terminologia deskribatzaile gisa sortutako emaitzak gordetzen dira. Gainera badira beste zenbait material kanpotik bilduak, adibidez, **Izen propioen hiztegia** eta **Kanpoko hustuketak** izenekoak.

Itzulpenerako lagungarri bezala **Dokumentuen datu-baseak** erabiltzen dira eta bi dira garrantzi handienekoak: Itzulpenen datu-base dokumentala eta Arauen datu-base dokumentala.

Fitxa terminologikoaren erudian ondorengo ezaugarriak azpimarra daitezke:

- datu-kategoria batzuen artean egitura hierarkikoa dago: kontzeptu-zenbakia -> hizkuntza -> terminoa -> iturria
- datu batzuk errepikagarriak dira: hizkuntza, terminoa, sailkapena.
- datuei ez zaie luzeran mugarik ezartzen.

Eguneratzearen barnean bi alderdi bereizten dira: informazioa gehitzea, hiztegi berri bat argitaratzen den bakoitzean egiten dena, eta lehendik dauden formak lexiko orokorreko arau berrietara egokitzea.

Kontsulta telematikoa lehengo saioak Minitel sisteman egin ziren 1987an. Lan Kide Aurrezkiko ordenadorean zegoen zerbitzaria. 1991tik kontsulta telematikorako bi bide daude aukeran, bata Bideotex sisteman eta bestea ASCII erako VT-100 terminalean Sarenet izeneko sare telematikoaz baliatuz.

Une honetan datu-bankuaren kudeaketa-sistema aldatzen ari da. Datu-baseak kudeatzeko BASISplus izeneko tresna aukeratu da, Unixen dabilena eta miniordenadore batean kokatua. Bezero-zerbitzari gisa PCetan lan egiten du erabiltzaileak.

Datu-bankuaren kontsulta telematikoa eguneratzeko erabakia hartu da eta lehengo sistemak utzi eta Interneteko bidea aukeratu da. Kontsulta HTML erako interfaze batetik egingo da.

Bancos de datos terminológicos: diseño y gestión de EUSKALTERM

Los primeros grandes bancos de datos terminológicos se desarrollaron en las décadas de los años 60 y 70, y en aquella época, en 1977, se creó asimismo UZEI, con el firme objetivo de dedicarse a la terminología.

La producción de diccionarios especializados fue muy abundante en los primeros diez años, y en 1988 había alrededor de 30 diccionarios independientes en el ordenador. Al banco de datos se le dio el nombre de **Euskalterm** y, por su estructura, se trataba de un “banco de datos organizado en forma de glosario”, es decir, conjuntos de entradas independientes, con poca información aparte de la forma de la entrada. Eran, en total, unas 124.000 fichas.

Se decidió convertir el banco terminológico en un “banco de datos organizado en forma de vocabulario” y se definieron unos conjuntos principales de fichas con la denominación de “diccionario”: **Diccionario terminológico** para las fichas terminológicas y **Diccionario de traducción** para las unidades de traducción. En otro diccionario con el nombre de **Consultas** se recoge la nueva terminología que surge con el trabajo diario. Con el nombre de **Fichas de vaciado** se guardan los resultados obtenidos a modo de terminología descriptiva. Además, hay diversos materiales recogidos de fuentes externas, como por ejemplo el **Diccionario de nombres propios** y los **Vaciados externos**.

Para ayudar a la traducción, se utilizan **Bases de datos documentales**, dos de ellas de la mayor importancia: la base de datos documental de traducciones y la base de datos documental de normas.

En el modelo de la ficha terminológica destacan las siguientes características:

- Entre algunas categorías de datos hay una estructura jerárquica: concepto -> lengua -> término -> fuente.
- Algunos datos son repetibles: lengua, término, clasificación.
- A los datos no se les imponen límites de longitud.

En cuanto a la actualización, se distinguen dos aspectos: el incremento de la información, que se hace cada vez que se publica un diccionario, y la adecuación de formas anteriormente existentes a las nuevas normas de léxico general.

Los primeros intentos de consulta telemática tuvieron lugar en el sistema Minitel, en 1987. El servidor se encontraba en el ordenador de la Caja Laboral Popular. Desde 1991, hay dos vías posibles para la consulta telemática, una en el sistema Videotex y la otra por medio de la red telemática denominada Sarenet, con terminal VT-100 ASCII.

Actualmente, el sistema de gestión del banco de datos está cambiando. Se ha elegido para la gestión de las bases de datos la herramienta llamada BASISplus, que funciona en Unix y está instalada en un miniordenador. El usuario utiliza PCs como cliente-servidor.

Se ha tomado la decisión de actualizar la consulta telemática del banco de datos, y se ha elegido para ello la vía de Internet, abandonando el sistema anterior. La consulta se hará desde un interfaz tipo HTML.

Banques de données terminologiques: dessin et gestion d'EUSKALTERM

Les premières grandes banques de données terminologiques se développèrent dans les décades des années 60 et 70 et à cette époque, en 1977, fut également créée UZEI, dont l'intention déclarée était de se dédier à la terminologie.

La production de dictionnaires spécialisés fut très abondante dans les premières dix années et, en 1988, on comptait quelque 30 dictionnaires indépendants sur ordinateur. Il fut donné le nom d'**Euskalterm** à la banque de données dont la structure la convertissait en "banque de données organisée sous forme de glossaire", c'est-à-dire un ensemble d'entrées indépendantes, possédant peu d'information hormis la forme de l'entrée. Il s'agissait, au total, de quelque 124.000 fiches.

Il fut décidé de convertir la banque terminologique en une "banque de données organisée sous forme de vocabulaire" et l'on définit des ensembles principaux de fiches par la dénomination de "dictionnaire": **Dictionnaire terminologique** pour les fiches terminologiques et **Dictionnaire de traduction** pour les unités de traduction. Dans un autre dictionnaire portant le nom de **Consultations** se trouve collectée la nouvelle terminologie qui surgit dans le travail quotidien. Sous le nom de **Fiches de dépouillement** sont conservés les résultats obtenus en guise de terminologie descriptive. Par ailleurs, divers matériels sont collectés de sources externes : tel est le cas, par exemple, du **Dictionnaire des noms propres** et des **dépouillements externes**.

En aide à la traduction, on utilise des **Bases de données documentaires**, dont deux de première importance : la base de données documentaire de traductions et la base de données documentaire de normes.

Dans le modèle de la fiche terminologique on relève notamment les caractéristiques suivantes :

- Parmi certaines catégories de données il y a une structure hiérarchique : notion -> langue -> terme -> source.
- Certaines données peuvent se répéter : langue, terme, classification.
- Aux données ne sont pas imposées de limitations de longueur.

Quant à l'actualisation, on distingue deux aspects : l'accroissement de l'information, qui intervient chaque fois qu'est publié un dictionnaire, et la mise en adéquation de formes préexistant aux nouvelles normes de lexique général.

Les premières tentatives de consultation télématiques eurent lieu sur le système Minitel, en 1987. Le serveur se trouvait sur l'ordinateur de la Caisse d'Épargne Caja Laboral Popular. Depuis 1991, il existe deux voies possibles pour la consultation télématique, l'une employant le système Vidéotex et l'autre via le réseau télématique dénommé Sarnet, sur le terminal VT-100 en ASCII.

À l'heure actuelle, le système de gestion de la banque de données est en cours de changement. Il a été choisi pour la gestion des bases de données un outil appelé BASISplus, lequel fonctionne en Unix et est installé sur micro-ordinateur. L'utilisateur fonctionne comme serveur de clients sur PC.

Il a été pris la décision d'actualiser la consultation télématique de la banque de données, et l'on a opté à cet égard pour le canal d'Internet, abandonnant par là même le système antérieur. La consultation se fera désormais à partir d'une interface de type HTML.

Terminology data banks: design and management of EUSKALTERM

The first major terminological data banks were developed in the 60s and 70s. In 1977 UZEI was set up as an organisation dedicated to terminology.

A great many specialist dictionaries were produced in the organisation's first ten years, and by 1988 around 30 independent dictionaries were held in the computer. The data bank was called **Euskalterm**. Its structure was that of a "glossary-type data bank", i.e. sets of independent entries with little information other than the form of the entry term. In total there were around 124,000 records.

It was decided to turn the terminology bank into a "vocabulary-type data bank", and main sets of files were defined under the name "dictionary": **Terminological Dictionary** for terminological entries and **Translation Dictionary** for translation units. Another dictionary, called **Consultations**, compiled new terminology which arose in day to day work. **Extraction Files** hold the results obtained in the form of descriptive terminology. There are also various materials compiled from external sources, e.g. the **Dictionary of Proper Names** and the **External extraction Files**.

As an aid in translation, documentary databases are used. The main two are the translation documentary database and the standards documentary database.

The type of terminological file used has the following main characteristics:

- a hierarchical structure between certain categories of data: concept -> language -> term -> source.
- Some data are repeatable: language, term, classification.
- No length limits are imposed on data.

As regards updating, two points stand out: the increase in information every time a dictionary is published, and the adjustment of forms already existing to new general lexical standards.

The first attempts at remote consultation took place under the Minitel system in 1987. The server was in the Caja Laboral Popular bank's computer. Since 1991 there have

been two ways of making remote consultations: by Videotex system and by the Sarenet remote network on an ASCII VT-100 terminal.

The data bank management system is now being changed. A tool called BASISplus, running under UNIX and installed on a mini-computer has been chosen to handle the databases. The user works as a client server on PCs.

It has been decided to update the remote consultation system of the data bank via the Internet, and to abandon the previous system. Consultations will take place via an HTML type interface.